

Txillardegi: «Mendebaldean ere nazio independenteen Europa nagusituko da»

Iñigo BILBAO, Bilbo

□ Independentzia aldarrikatzea zaharkiturik ei dago batzuren ustetan. Hala ote?

■ Horri erantzuteko aski da azken hilabete hauetan gertatu direnak begiratzea. Hara hor Sovietar Batasuneko nazio guztiak nola ari diren beren askatasuna eskatzen eta lortzen. Gauza bera gertatzen ari da Yugoslavia izandako zera horretan. Uste dut sekulan ez dela egon Europan independentziaren aldeko horrelako mugimendurik.

Eta gauza ez da horretan bukatzen: Britainia Nagusian oso kezkatuta daude eskoziarren independentziaren aldeko mugimendua nola azkartzen den ikusita; eta Quebec-en autodeterminazio prozesua indarrean dago eta, seguruenik, aurki izango da estatu berri bat Ipar Amerikan. Zaharkiturik dagoela guztiz faltsua da.

Orain ehun urte gauza bera

□ Beste batzuk diote independentzia ez dela sei hilabeteetan lortuko eta, beraz, herria engainatzen ari zaretela. Zer deritzozu horri?

■ Jakina hain epe motzean ez dela lortuko. Hori badakigu, baina herri honetan aspaldiko kontua da hau. Arana Goirik orain ehun urte aldarrikatzen zuen horixe bera. Hori leku guztietan geratzen da, eta gertatu da. Aski da ikustea, eman dezagun, Eslovenia: Ez da sekula askatua izan, nahiz eta betidanik izan duen nortasun propioa eta libre izateko nahia. Mendeak pasa dira garapena lortu arte. Hori bai. Baina horrek ez du ezer esan nahi.

□ Oso jende ezberdinak aitortzen du bere burua abertzale gisa. Zer da baina abertzale izatea?

■ Abertzale dira Euskal Herria nazio gisa ikusten dutenak eta burujabetza aldarrikatuz, nazio hori Historiaren subjeto izatea, benetan eta osoki, nahi dutenak. Abantaila zenbaitekin edo ez dakit zerekin aski dute, horiek ez dira abertzaleak!

□ Kontzeptua eskusibista da, beraz?

■ Oinarria hori da: Herri honen benetako burujabetasuna. Hori eskusibista bada, orduan bai. Baina ez dut uste hala denik. Ez dut uste Frantzia eskusibistak direnik *La France* aldarrikatzen dutenean. Hori egia aitortzea besterik ez da.

□ Zelako behar du izan, zure ustez, Europarekiko lotura? Horren baitan ba ai du zentzurik independentziak?

■ Europa gero eta gehiago da estatu multzo baten elkargoa. Jakina, Ekialdean geratzen ari dena ikusita, Kroazia, Eslovenia... eta horiek guztiak burujabe direla ikusirik, eta gauza bera Ukraina edo Armenia, uste dut horrelako zerbit datorkigula Europara. Ez dut uste kasualitatez denik, adibidez, Estatu Independentien Konfederazioa bezalako izena hartzea. Horrelako zerbit posible izango da Europan. Eta ez posible bakarrik, hori da datorrena eta besterik ez dago.

Bai Independentziari

□ Bai Independentziari izeneko horretan ikusi zaitugu. Zertan datza ekimena?

■ Ikusirik bertako politika ofiziala, bai Eusko Jaurlaritzan, bai Nafarroan, guztiz dagoela Espainiako proiektu baten barruan, iruditzen zaitzugu beharrezkoa zela ha-



Alperrik Txillardegi nor den abertzale bati argitzen hastea. Jose Luis Alvarez Enparantzaren izena, eta izana, ezagunak dira. Horrexegatik «ez da seriotan hartu behar» dixosozko X haren gaineko saltsa hura. Hori da berak pentsatzen duena. Nahiago du abertzaletasunaz eta independentziaz hitzegitea.

lako ekimena osatzea. Gasteizen egin zuten Autodeterminazio aldarrikapen hura zokoratu egin dute, PNVk eta, kajoi batean sartu dute eta ez doa aurrera. Premiazkoa da, gure ustez, herri honen helburua askatasuna dela azpimarratzea Eslovenian bezala.

Horrexegatik, *Gora Euskadi Askatuta!* esaten dutenak ez badira lotsatzen, iruditzen zaitzugu independentziaren aldeko mugimendu politiko bat bideratzeko momentua zela. «Bai Independentziari» partidu guztien gaineratik sortu zen asmo bakarrek: Abertzale independentista guztiak elkartzea.

□ Aberri Egun bateratua egiteko deia zabaldu duzue, mugan gainera. Zergatik hori?

■ Uste dut 64.ean izan zela lehenengo aldiz batu gindela danak iparraldekoak eta hegoaldekoak mugan, eta fisikoki gainera, elkarren ondoan. Beraz, Bidasoaz bi alderdietan, Hori psikologikoki, eta politikoki ere bai, oso garrantzizkoa da eta horrexegatik deitu dugu Aberri Eguna mugara.

□ Ikusi dugu bestalde Bruselaserako joatekotan zaretela, ezta?

■ Europa berri hori da Estatuaren artean osatzen ari den zerbit. Estatu federazio gisako zerbit. Hala ere, iruditzen zaigu politikoki Brusela altaboz egokia izan daitekeela gure eskakizunak ezagutarazteko. Ez han erabakiko delakoa, hori ez, baina han egiten badugu oihartzun handiagoa izango du.

□ Posible ikusten al duzu oinarriko batasunik lortzea?

■ Gauzak dauden bezala... Begira, Ardanzak berak Mexikon esan dituen gauza lotsagarri horiek eta gero, zorakeria litzateke pentsatzea PNVk, eman dezagun, ofizialki eta partidu gisa, halako zerbitaitan bostiztea. Baina abertzale jendea ez dago bakarrik HBren inguruan, badaude EA, eta PNVn, beharbada, beste batzuk ere bai.

Horien inguruan behetik gora, beharbada... Nik, egia esan, ez dut esperantza handiegirik. Baina herri mugimendu gisa, litekeena da euskararekin gertatu den bezala... Herriak sentitzen bait du independentziaren problema eta uste dut beharbada zerbit bultzatuko duela.

Batasun eza konstate bat

□ Batasun eza konstate bat izan da abertzalegoaren baitan. Gerra aurretik ere, hortxe ditugu Aberri eta Jagi-Jagi gisako mugimenduak. Zer derizkiezu horiei?

■ Askotan aipatzen da hori. Ez dakit noraino den egia. Une honetan esatea PNV gurekin ez dagoelako zaituta gaudela, hori ez da egia. PNV PSOErekin dago eta hori bere lekua: Espainola da eta bere proiektua Espainia da. Beraz ez dago zatiketarik. Triste da, eta hori aitortu beharra dago, oinarri soziologikoetan badagoela benetako abertzaletasuna. Senditu horretan badago halako zatiketa.

□ Eta historikoki, nola ikusten dituzu Aberri eta Jagi-Jagi bezalako mugimenduak?

■ Uste dut talde profetikoa izan dela Gallastegiren inguruko Jagi-Jagi, eta nahi bada hasierako Aberri hura. Izan da profetikoa talde hori izan delako lehenengo aldiz klase eta nazio arazo nolabait elkartzen saiatu dena. Benetako abertzaleatasunak eta independentismoak, du-darik gabe, Aberri eta Jagi-Jagitik gero ETARA eta orain Herri Batasunera, horixe du hildoa.

□ Entzun dugu ezker abertzaleak ezin duela Eli Gallastegi zana aldarrikatu. Zergatik?

■ Aldarrikatu beharra daukagu, bai. Egia esan, hori nik ez nuen lehen orain bezain garbi ikusten. Baina Lorenzo Espinosaren lanaren ondoren garbi dago guk somatzen genuena egia zela, ezta? Egan nahi dut, hor, ETAREN eta ezker abertzalearen hasieran zeudenak, Gallastegik zituela lehenengo mamitu eta gorputza.

Ez da bakarrik Eli Gallastegi erreindikatze eskubide osoa dugula, bera da gure aita: Independentista, euskaltzalea, problema nazionala eta soziala uzartu nahia... guzti hori Gallastegik planteatu du lehenengo. Egia da ANVkoak ere hor zuek, baina sozialki eta politikoki mugimendua, nire ustez, Jagi-Jagiren inguruan geratu zen.

Are gehiago, 61.ean ihes egin behar izan nuenen, mugatik Jagi-Jagikoez pasa ninduten ni. Ez Jagi-Jagik berak, baina bai bere jendeak. Une hartan begi ez nuki etsi eta laguntza ematen zigen jendea zen: Lezo Urreztieta edo Ortiz Zumalabe bezalakoak. Hori guztiak, orain konturatu gara, horiek Jagi-Jagiren azken arrastok ziren eta horiek gurekin ibili dira. Lotura, beraz, badago, eta historikoa.

Dixosozko X hori dela eta

□ Zuru ustezko zatiketa baten zurrubilaon sartuta egon zara egunotan dixosozko X hura medio. Zer gertatzen ari da?

■ Ez du ezertarako balio hori seriotan hartzea. Nik ez daukat problemarik HBrekin. Mahai-Nazioala utzi nuen inorekin haserretu gabe eta froga da hor segitzen dudala HBko ekintzetan. X ni naizela esatea, berdin esan zezaketen beste zerbit. Fantasia hutsa da.

□ Esaten dute, dena den, HBren baitan badela familia desberdinik, badela zatiketa nahikorik...

■ Herri Batasuna beti izan da jende differenteen arteko elkarte. Horretatik ondorioztatzea gauza puskatzen ari dela. Beharbada ni oso mitepa nai baina nik ez dut hori batere ikusten. Interesa dutela, bai. Jakina! Madrilen interes izugarria dute ezker abertzalea zatitzea, baina nik ez dut ikusten horren arrastorik gure artean.

□ Madril aipatu duzularik, baote du gatazka honek irtenbiderik?

■ Garbi dago Europa zaharra zaharrak izaten ari dela. Ez dakit zergatik den horren ezinezkoa Eslovenia lekuri lortu badu, Euskal Herriak lortuko duela pentsatzea. Guk ez dugu une honetan oso garbi ikusten, baina orain dela 90 urte Europako mapa ikusten dugunean, horrek ez du antzirik ere oraingoarekin. Aldakuntza gelditu egin dela? Justu txanda guri dagokigunean? Ez dakit zergatik!

Garaikoetxea proposa al PNV que eche del Gobierno al PSOE

El presidente de Eusko Alkartasuna, Carlos Garaikoetxea, propuso ayer al PNV que eche del Gobierno de Gasteiz al PSOE. "Si en verdad no están de acuerdo con las actuaciones de los socialistas".

Pidió a los dirigentes del PNV que "no jueguen con dos barajas; por un lado trabajando con el PSOE para mantener cotas de poder y desalojando a los restantes partidos nacionalistas y, al mismo tiempo, queriendo quedar bien, denunciando al PSOE que es el socio que ellos han elegido y al que están dando un aval para hacer todo lo que está haciendo".

La batalla de Matxitxako

El líder de EA participó en un acto político en Bermeo con motivo del 55 aniversario de la batalla naval de Matxitxako. Antes, un grupo de personas se trasladó a la zona donde marineros de Bermeo, a las órdenes del ejército vasco, se enfrentaron a la Marina sublevada a la República. Después hicieron una ofrenda floral en el monolito que recuerda a los fallecidos en esos hechos.

Sobre la posible participación del PNV en un gobierno de coalición con el PSOE en el ámbito estatal, Garaikoetxea señaló que "el PNV está haciendo cosas incomprensibles si no existiera alguna perspectiva relacionada con las próximas elecciones generales".

"Busca, no sé si un gobierno de coalición en Madrid, porque eso no sé si lo digerirían las bases del PNV, pero sí cotas de poder, que pareciera la única meta que guía a la dirección del PNV".

Respecto a las acusaciones cruzadas entre el PNV y el PSOE por su presunta responsabilidad en la situación de la industria vasca, el dirigente de EA dijo que "resulta escandaloso que el PNV, que ha elegido al PSOE como su socio, que lo ha introducido en todas las instancias de poder de Euskadi, pretenda jugar con dos barajas y lanzar a la población vasca el mensaje de su desacuerdo con el PSOE y endosarle las responsabilidades del desmantelamiento industrial de Euskadi".

Garaikoetxea calificó esta actitud del PNV de "escandalosa e insultante, porque es tomar por tonta a la ciudadanía, a la que se ha explicado que la alianza del PNV con el PSOE es la gran solución a los problemas del país, y ya vemos que hay desacuerdos en todos los órdenes".

Mosquera: «UA no quiere relaciones con los escindidos de UPN»

El secretario general de Unidad Alavesa, Pablo Mosquera, manifestó que "UPN es la fuerza política que representa al formalismo en Navarra" y añadió que su formación "no tiene relación, ni desea tenerla" con el grupo escindido del partido que preside Jesús Aizpín.

Mosquera, se refirió a la aparición de Regionalistas Navarros, formación nacida del descontento de algunos militantes de UPN.

El secretario general de UA quiso ser "respetuoso con los problemas de UPN", ya que "todos los partidos sufren alguna crisis", y añadió que la formación formalista alavesa "seguirá trabajando con ellos".

"UPN añadió Mosquera- es un gran partido, independientemente de lo que puedan decir algunos..."